

## UPV/EHUko FARMAZIA FAKULTATEKO GRADU AMAIERAKO LANENTZAKO MEDIKUNTZA PERTSONALIZATUKO i+Med GELAREN SARIEN I. EDIZIOAREN DEIALDIA

### 1. DEIALDIAREN HELBURUA ETA APLIKAZIO-EREMUA

i+Med-ek eta Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) Medikuntza Pertsonalizatuko i+Med Gela sortzeko sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren esparruan aurreikusitako ekintzak betetze aldera, Medikuntza Pertsonalizatuko i+Med Gelako jardun eremuarekin zerikusia duten Gradu Amaierako Lan onenak saritzeko UPV/EHUk i+Med GELAKO SARIEN I. ediziorako deialdia egiten du. Jarduera hauek honako hauetan oinarritzen dira:

- Farmakoen dosifikazio sistema berrien inguruko ikerketa eta garapenean, bereziki, askapen kontrolatuko sistemen ingurukoetan.
- Osasun produktuen eta medikamentuan garapen prozesuetan lan metodologia berritzaileak eta kalitatea bermatzeko oinarrietan.
- Digitalizazioa eta adimen artifiziala aplikatzea osasun-arloko laguntza- eta ikerketa-prozesuetan.
- Osasun arazoen jarraipena hobetzeko irtenbide berritzaileen garapenean.
- Balioan eta berrikuntzan oinarritutako baliabide farmakoterapeutikoen kudeaketan.
- Hidrogelen ikerketa eta garapenean.
- Terapia aurreratu eta medikuntza birsortzaile arloetako ikerketa.
- Irtenbide berritzaileen garapenean mikrofluidika arloan.
- *Point of care testing*-ean oinarritutako ikerketa eta aplikazioetan.
- Bioinprimaketa bidez medikamentu edota osasun produktuen metodologia eta garapenean.
- Nutrazeutikoen arloko ikerketetan

Deialdi honen helburua 2023- 2024 ikasturtean aurkeztu, defendatu eta ebaluatu diren UPV/EHUko ikasleen ezaugarri horietako lanik onenak aitortu, agerian jarri eta saritzea da.

Bi sari banatuko dira Gradu Amaierako Lan hoberenei zuzenduak: lehenengo saria 450€-koa izango da eta bigarrena, aldiz, 250€-koa.

Sariak finakoak izango dira, titulazioa lortu zuenarentzat, eta besterenezinak.

## 2. HAUTAGAIEN BALDINTZAK

Aurkeztutako lanek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Lanak 2023-2024 ikasturtean UPV/EHUko Farmazia Fakultateko edozein Unibertsitate-Gradu (GRAL) ofizialetan matrikulatutako ikasleek egindakoak izango dira.
- 2023-24 ikasturtean defendatutako eta ebaluatutako lanak izango dira, eta haien kalifikazioa gutxienez 8,5ekoa izango da.
- Aurreko ataletan azaldu diren Medikuntza pertsonalizatuko i+Med Gelako jarduerekin zerikusia izan beharko dute. Zalantzarik izanez gero, Gelako Zuzendaritzak zehaztuko du GRALek deialdiaren xede diren jarduerekin kidetasunik ba duten.

Lanak euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez aurkeztu ahal izango dira.

## 3. ESKAEREN FORMALIZAZIOA, ENTREGATZEA ETA EPEAK

Lanak bere egileek aurkeztuko dituzte, banaka bidaliz.

### 3.1 Eskaerak aurkezteko modua

Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira Medikuntza Pertsonalizatuko i+Med Gelaren webguneko formularioaren bidez. Aplikazioei buruzko galderak helbide elektronikoa honetara bidal daitezke: [aulaehu-imasmed@ehu.eus](mailto:aulaehu-imasmed@ehu.eus).

Medikuntza Pertsonalizatuko i+Med Gelatik eskaera jaso izanaren berri emango da, bai eta eskaeraren egokitasunaren berri ere, gaiari, eskatzailearen baldintzei eta aurkeztutako agiriei dagokionez.

### 3.2 Dokumentazioa

Deialdian parte hartzeko, eskatzaileek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Online eskabide-orria, datu pertsonalak, harremanetarako datuak eta aurkeztutako lanaren datu orokorrak eta kalifikazioa barne.
- GRALaren laburpena, Sarirako egokia delako arrazoiak bereziki nabarmenduz (gehienez 600 hitz).
- GRALaren alea, PDF formatuan. Bertan, lanaren egilearen datu pertsonalak (izen-abizenak), eta inplikaturako Gradu edo Master ofizialaren identifikazioa agertuko dira.
- Lanaren zuzendariak sinatutako adostasun-gutuna. Isilpeko lanen kasuan, egoera horren berri emango da dagozkion neurriak har daitezzen.

### 3.3 Eskerak aurkezteko epea

Eskerak aurkezteko epea 2024ko irailaren 30ean hasi, eta urriaren 15ean amaituko da.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo zuzendu daitezkeen akatsak baditu, Sariaren eskatzaileari eskatuko zaio, gehienez 5 egun balioduneko epean, akatsa zuzentzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko, eta, hala egiten ez badu, eskaera bertan behera geratuko dela ohartaraziko zaio.

Deialdi honetako Epaimahaiak deialdia ebazteko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatzen ahal izango du.

## 4. EPAIMAHAIA, BALORAZIO IRIZPIDEAK ETA ERABAKIA

### 4.1 Epaimahaia

Epaimahaiak hiru kide izango ditu: Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzak izendatutako pertsona bat, Farmazia Fakultateko dekanotza taldeak proposatutako pertsona bat, eta i+Medek sortutako Nanohidrogel Adimendunen Institutu Internazionalerako ikertzailea den pertsona bat, UPV/EHUko i+Med Gelatik kanpokoak.

UPV/EHUko Medikuntza Pertsonalizatuko i+Med Gelako Zuzendaritzak zainduko du epaimahaikideek lotura zuzenik ez dutela aurkeztutako lanen egileekin edo zuzendariekin, eta epaimahaikideek hizkuntza desberdinetako lanak ebaluatzeko hizkuntza-gaitasuna dutela.

Epaimahaiak iritzia eskatzen ahalko die epaimahaikide ez diren profesional, ikertzaile edo espezialistei.

#### 4.2 Balorazio irizpideak

Sariak emateko lanen balorazioa kualitatiboki egingo da honako hauen arabera:

- Lanaren kalitatea, honako hauek barne hartuta: behar bezala zehaztutako helburuak, metodologiaren egokitasuna, proiektuaren diseinua, datu tratamenduaren xehetasuna, eta azalpenen argitasuna.
- Proposamenaren izaera berritzailea, garrantzia eta potentziala, honako hauek barne hartuta: gaiaren, ikuspegiaren edo arloaren berritasuna eta ekarpenen eragin potentziala, aplikazioa eta interes soziala.
- Medikuntza Pertsonalizatuko i+Med Gelaren eta eta Nanohidrogel Adimendunen Institutu Internazionalako helburuetarako ekarpena.

Ez dira baloratuko, lehen fase batean, i+Med Gelako Zuzendaritzak eta/edo, geroago, Epaimahaiak deialdian egokitzen ez diren edo Sarien xede diren gaiekin zerikusirik ez duten lanak.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta Sariak baliogabe utzi ahal izango dira, bere iritziz, aurkeztutako lanek kalitate eta originaltasun-irizpide nahikorik betetzen ez badute edo ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte.

#### 4.3 Erabakia eta difusioa

I+Med Gelak deialdiaren emaitza argitaratuko du 2024ko urriaren 25a baino lehen, Bertan, irabazleen izen-abizenak eta saritutako lanak ezagutzera emango dira. Ebazpena pertsonalki jakinaraziko zaie irabazleei, haiek emandako harremanetarako bidearen bidez.

Sariak 2024ko urriaren 25ean egingo den graduazio ekitaldi akademikoan banatuko dira, eta irabazleek ekitaldi horretara joateko konpromisoa hartuko dute saria jaso eta saritutako lanaren aurkezpen labur bat egiteko.

Sariak banatzeko ekitaldiaren argazkiak i+Med Gelako webgunean argitaratuko dira eta UPV/EHUK eta Medikuntza Pertsonalizatuko i+Med Gelak egoki iritzitako hedabideen bidez zabaldu ahal izango dira. UPV/EHUren datuak babesteko politikari buruzko informazio guztia <https://www.ehu.eus/babestu> estekan dago eskuragarri.

Deialdian parte hartzeak oinarri hauek onartzen direla esan nahi du.

Vitoria – Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.